

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko uztaila

2025eko uztailan Euskal AEko landetxeetan emandako ostatu-gauak % 3,7 egin dute gora eta apartamentu turistikoetan emandakoek % 22,1; aterpetxe turistikoetako ostatu-gauak, berriz, % 10,8 egin dute behera

2025eko uztailan, plazen okupazio-maila % 50,0etik gorakoa izan da hiru establezimendu-motetan

2025eko uztailan, Euskal AEko landetxeetan sarrerak % 1,6 jaitsi dira, aurreko urteko hil berarekin alderatuta, eta ostatu-gauak, berriz, % 3,7 igo dira, Eustatek landutako datuen arabera. Urte arteko aldakuntza horiekin, uztailan 23.652 sarrera izan dira eta ostatu-gauak, berriz, 76.044 guztira.

Euskal AEko landa-ostatu-etako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Uztaila 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	2024/07	2025/07	p.p. *	2025/07	p.p. *
EUSKAL AE	23.652	-1,6	76.044	3,7	3,22	3,05	52,6	1,9	58,7	2,7
Estatukoak	15.211	-7,5	48.967	-5,9	3,22	3,17	-	-	-	-
Atzeritarrak	8.441	11,0	27.077	27,3	3,21	2,80	-	-	-	-
Araba/Álava	4.115	2,6	11.015	-0,3	2,68	2,75	34,0	1,6	40,5	1,5
Estatukoak	2.649	-10,2	6.945	-16,9	2,62	2,83	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.466	38,2	4.070	51,2	2,78	2,54	-	-	-	-
Bizkaia	7.520	-1,7	21.425	-1,3	2,85	2,84	51,6	-0,7	56,8	-0,6
Estatukoak	4.515	-12,5	13.187	-13,3	2,92	2,95	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.005	20,8	8.238	27,0	2,74	2,61	-	-	-	-
Gipuzkoa	12.017	-2,9	43.604	7,5	3,63	3,28	61,7	3,0	68,6	5,1
Estatukoak	8.047	-3,4	28.835	1,3	3,58	3,42	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.970	-2,1	14.769	22,1	3,72	2,98	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Abuztuaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Aurreko urteko uztailarekin alderatuta % 11,0 gora egin ondoren, atzerriko bisitarien sarrerak Euskal AEko landetxeetan izandako sarrera guztien % 35,7 izan dira. Bestalde, atzerritar jatorrikoen ostatu-gauak guztizkoaren % 35,6 izan dira, 2024ko uztailarekin alderatuta % 27,3 gora egin ondoren.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko uztailean, sarrerek % 2,6 egin dute gora Araban, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 1,7 eta % 2,9 egin dute behera, hurrenez hurren. Ostatu-gauei dagokienez, % 7,5 egin dute gora Gipuzkoan eta % 0,3 egin dute behera Araban eta % 1,3 Bizkaian.

Euskal AEko mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia¹ 3,22 egunekoa izan da 2024ko uztailean, 2024ko uztailean izandako 3,05 egunekoa baino luzeagoa.

Plazen eta logelen okupazio-mailek urtetik urterako ehuneko 1,9ko eta 2,7ko igoera izan dute, hurrenez hurren, eta plazen arabera neurtuta % 52,6koa izan da eta logelen arabera neurtuta % 58,7koa.

Apartamentu turistikoei dagokienez², 2025eko uztailean 35.436 sarrera izan dira, eta ostatu-gauak 97.610. Aurreko urteko uztailarekin alderatuta, % 32,3ko igoera izan da sarreren kasuan eta % 22,1ekoa ostatu-gauen kasuan.

¹ Batez besteko egonaldia bidaiariek gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

² Apartamentu turistiko esaten zaio blokearen edo multzoaren modalitatean kudeatzen duen ustiapeneko enpresa-unitate baten ardurapean eskaintzen den ostatu-unitate bakoitzari. Ez dira epigrafe honetan sartzen turismo-erabilerako etxebizitzak, arrazoi turistikoengatik aldi baterako eskaintzen, merkaturatzen edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Uztaila 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	2024/07	2025/07	p.p. *	2025/07	p.p. *
EUSKAL AE	35.436	32,3	97.610	22,1	2,75	2,99	52,0	-0,5	83,5	21,1
Estatukoak	17.686	29,7	49.499	19,3	2,80	3,04	-	-	-	-
Atzeritarrak	17.749	35,0	48.110	25,1	2,71	2,93	-	-	-	-
Araba/Álava	1.092	-21,6	11.108	-4,3	10,17	8,34	31,6	-4,0	74,3	-10,0
Estatukoak	833	-19,3	8.589	5,8	10,31	7,86	-	-	-	-
Atzeritarrak	259	-28,1	2.519	-27,8	9,72	9,68	-	-	-	-
Bizkaia	23.066	47,9	48.028	31,1	2,08	2,35	52,1	-2,8	80,7	16,1
Estatukoak	11.561	41,6	22.743	20,2	1,97	2,32	-	-	-	-
Atzeritarrak	11.504	54,8	25.285	42,6	2,20	2,38	-	-	-	-
Gipuzkoa	11.278	15,3	38.474	21,4	3,41	3,24	63,5	3,9	90,8	38,8
Estatukoak	5.292	19,4	18.167	25,6	3,43	3,26	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.986	11,9	20.307	17,8	3,39	3,22	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Abuztuaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 50,1 eta ostatu-gau guztien % 49,3 atzeritar jatorriko bisitariei dagozkie, 2025eko uztailan urte arteko % 35,0eko eta % 25,1eko igoerak izan ondoren, hurrenez hurren.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 2,75 egunekoa izan da 2025eko uztailan, 2024ko uztailan erregistratu zen 2,99 egunekoaren azpitik. Mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 10,17 egunekoa izan da Araban, 3,41 egunekoa Gipuzkoan eta 2,08 egunekoa Bizkaian.

Plazen okupazio-maila % 52,0koa izan da Euskal AEn, 2024ko uztailarekin alderatuta ehuneko 0,5 puntu galdu ondoren. Apartamentu bakoitzeko okupazio-mailak ehuneko 21,1 puntu egin du gora, eta % 83,5koa izan da.

Euskal AEko **turismo-aterpetxeei** dagokienez, 2025eko uztailan urtetik urterako sarrerak % 8,9 jaitsi dira, eta guztira 29.618 izan dira. Horietan emandako ostatu gauak 59.882 izan dira guztira. Bizkaian 31.853 ostatu-gau erregistratu dira, Gipuzkoan 25.806 eta, azkenik, Araban ostatu-gauak 2.223 izan dira.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Uztaila 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	m/m-12 (%)	2025/07	2024/07	2025/07	p.p.
EUSKAL AE	29.618	-8,9	59.882	-10,8	2,02	2,06	53,4	-7,9
Estatukoak	10.753	2,9	25.725	8,2	2,39	2,27	-	-
Atzerritarrak	18.865	-14,5	34.157	-21,2	1,81	1,96	-	-
Araba/Álava	1.571	204,8	2.223	81,7	1,42	2,37	41,9	18,3
Estatukoak	1.059	129,8	1.687	53,1	1,59	2,39	-	-
Atzerritarrak	512	840,0	536	341,3	1,05	2,23	-	-
Bizkaia	15.397	-10,3	31.853	-7,0	2,07	1,99	55,5	-5,3
Estatukoak	5.708	-3,3	14.152	19,1	2,48	2,01	-	-
Atzerritarrak	9.689	-14,0	17.701	-20,8	1,83	1,98	-	-
Gipuzkoa	12.650	-14,8	25.806	-18,5	2,04	2,13	52,2	-13,6
Estatukoak	3.986	-2,5	9.886	-8,4	2,48	2,64	-	-
Atzerritarrak	8.664	-19,4	15.920	-23,8	1,84	1,94	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Abuztuaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Ostatu-mota horretako egonaldiaren batez besteko iraupena 2,02 egunekoa izan da Euskal AE osoan, eta plazen okupazio-maila, urte batetik bestera ehuneko 7,9 behera egin ondoren, % 53,4ra jaitsi da.

Datu metatuak (2025eko urtarrila-uztaila)

2025ean, orain arte, Euskal AEko **landetxeetan** 99.085 sarrera eta 243.909 ostatu-gau erregistratu dira, 2024ko aldi metatu berean baino % 5,1 eta % 6,0 gehiago. Batez besteko egonaldia 2,46 egunekoa izan da, hau da, aurreko urtekoaren antzekoa, 2,44 egunekoa izan baitzen. Okupazio-mailari dagokionez, plazen arabera neurtuta % 28,8ra iritsi da, eta 2024ko aldi metatu berean, berriz, % 26,6ra iritsi zen. Logelen arabera neurtuta ere 2024ko aldi metatu berekoa baino handiagoa izan da, kasu horretan % 31,1ekoa izan baitzen eta 2025eko zazpi hilabete hauetan % 33,9koa izan baita.

Apartamentu turistikoei dagokienez, uztailera arte 157.284 sarrera metatu dira eta 461.471 ostatu-gau, eta 2024ko aldi berarekin alderatuta, beraz, sarrerek % 36,9 egin dute gora eta ostatu-gauak % 18,8. 2025eko zazpi hilabete hauetan batez besteko egonaldia 2,93 egunekoa izan da, eta 2024ko aldi berean, berriz, 3,38 egunekoa izan zen. Plazen arabera okupazio-maila % 38,7koa

izan da eta apartamentuena % 69,4koa, hau da, 2024ko aldi bereko okupazio-maila baino % 0,4 eta % 5,6 puntu handiagoa.

Turismo-aterpetxeei dagokienez, 2025ean 142.486 sarrera eta 259.018 ostatu-gau izan dira, 2024ko lehenengo zazpi hilabeteekin alderatuta sarrerek % 0,1 eta ostatu-gauek % 3,8 behera egin ondoren. Batez besteko egonaldia 1,82 egunekoa izan da, aurreko urteko 1,89 egunekoaren azpitik. Plazen okupazio-maila % 37,4koa izan da, 2024ko aldi metatu berekoa baino % 2,0 txikiagoa.

Informazio-oharra

ETHren inguruan emandako erantzunen tasa % **85,0ekoa** izan da hilabete honetan landetxeetan, % **73,6koa** apartamentu turistikoetan eta % **75,6koa** turismo-aterpetxeetan. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62